

## **DOS sistema berriaren bertsio berria**

IBMk kaleratu duen DOSaren bertsio berri hau 4.0a da. Aurreko bertsioak baino erabilpen errazagoa du eta tamaina handiagoko fitxategiak maneiatzeko gai omen da. DOSa da gehien erabiltzen den sistema eragilea, bai PCetan eta baita PS/2 familiako eredu sinpleenetan ere. DOS 4.0k 30 funtzio berri ditu eta aurreko bertsioekin guztiz bateragarria da; hots erabiltzaileek eskura izango dituzte aurreko bertsioetako komando eta aukera guztiak ere.

Menu bidez kontrolatutako interface grafikoa da bertsio berri honen ezaugarri nagusienetakoa; ezaugarri hau bait da hain zuzen ere DOSa erabiltzeko ohiturarik ez dutenei lana errazten diena. Fitxategi-antolatzailea eta aplikazio-hautatzailea ere baditu, baina erabiltzaile trebatuek ohizko komando-lerroa ere erabili ahal izango dute nahi izanez gero. Bestalde, 32 Mbyte-tik gorako disko gogorak partiziotan zatitu gabe maneia ditzake eta honek disko gogorreko espazio osoa hartuko duen fitxategi bat sor daitekeela esan nahi du.

Aurreko bertsioek 32 Mbyte-tan zuten muga.

Instalazio-prozedura errazagoa da eta eskaintzen dituen errore-mezuak aurreko bertsioetakoak baino adierazgarriagoak dira.

## **Diapositibak ordenadorearen bidez**

Slidewriter testuen, scanner-en bidez sartutako irudien edota edozein grafikoren koloretako diapositibak ateratzen dituen ordenadore-periferiko bat da. Macintosh Plus, SE edo Macintosh II batera konektatuta 24 x 36 neurritako 45 diapositiba egin ditzake orduko eta 2732 x 4096 puntuko bereizmenarekin.



Pelikularen inpresioa bereizmen altuko pantaila batean egiten da, programa batek irudiak edo koloreak aldatzeko aukera emango duelarik.

Bi motatako diapositiba-filmak erabil daitezke: Kodak Ektachrome EPN 100 eta Polaroid Polachrome 100 motakoak. Interface batek eta Slidewriter periferikoaren programak gobernatzen dute Macintosh-aren eta diapositiba-prozesatzailearen arteko datu-transmisioa.

Slidewriter-a periferiko osatua da. Argazki-unitatea, Macintosh-erako interface-a eta esplotazio-programa barneratzen ditu. MacDraw, MacPaint eta PICT formatutako fitxategiak sortzen dituzten programekin bateragarria da.

## **DITEXTO: testu-lanketarako programa**

Lehenago ere testu-tratamendu aurreratuenetakotzat kontsideratua bazegoen ere, oraingoan prestazio bikain bat eskaintzen du: scannerraren bidez mekanografiatutako testuak 500 karaktere/minutuko abiaduraz irakurtzen dituen OCR bat (Karakteren Irakurgailu Optikoa). Zer esan nahi du honek? Ezagunak ditugu jadanik, edo entzunak behintzat bai, scannerrak, eta badakigu haien bidez informazioa ordenadorera tekleatu gabe sar daitekeela. Beraz, zein da OCR honen eginkizuna eta benetako abantaila? Scannerraren bidez ordenadorera sartzen diren testuak grafiko modura hartzen dira eta testu horiek lantzeko garaian zailtasunak egon daitezke. OCR honekin aldiz, testuak zuzenean DITEXTO formatura pasatzen dira eta tekleatuak izan balira bezalaxe tratatu ahal izango dira.

Edozein letra-mota ezagutu dezake; horretarako edozein irakurle optikok bezala ikasketa-fase bat pasa beharko duelarik. Ikasketa-fasean aztertzen ari den karaktereari buruzko galderak egingo ditu, ezaugarri horiek argi dauzkanean fitxategi batean gordez.

Oraingoz Microtek, AUR, IBM, AGFA, HP, Cannon, AST eta .TIFF fitxategiak sortzen dituen edozein scannerrekin erabil daiteke. Gerora beste batzuekin ere erabili ahal izango da.

Bestalde, paketearen prezioa lehengoan mantenduko da, hau da, 95.000 pta.tan. Prezio ona kontsidera daiteke hau, PCetarako dauden beste antzeko ezaugarrietako OCRak 300.000 pta.tik gora balio dutela kontutan hartzen badugu. ■